

ZIRKULAZIOA ▶

Istripuak festetako azken egunean

Auto batek Zorroagako seinale eta farola bana kaltetu ditu; beste batek seinale bat bota du Foruen pasealekuan

A. PORTUGAL

Aste Nagusiko azken gauak biharamun gatazkatsua izan zuen atzo, errepidean. Bi auto istripu izan ziren Donostian goizeko lehenengo orduetan, eta biek antzeko ondorioak izan zituzten: kalte nabarmenak autoetan, eta baita trafikoko seinale eta faroletan ere.

Lehenengo istripua 07:00ak aldera gertatu zen Zorroaga pasealekuan, Toribio Alzaga kaleetik gertu. Udaltzaingoaren arabera, auto batek kalteak eragin zituen trafikoko seinale eta farola banatan. Ez zen zauririk izan.

Bigarren istripuari dagokionez, 10:30ak inguruan gertatu zen Foruen pasealekuan, Santa Katalina zubi ondoan. Auto batek errepidearen ezkerreko aldean jo zuen, eta bertako trafikoko seinalea bota zuen. Gidariak udaltzainei esan zienenez, eskuinetik zetorkion ibilgailu bat saihestearren izan zuen ez-



Foruen pasealekuan istripua izan zuen autoa. A. PORTUGAL

berharra. Dena dela, udaltzainek alkoholemia kontrola egin zituen gidariari. Auto istripuak trafikoko moteldu egin zuen Foruen pasealekuan, baina ez

zuen arazo larrikeria eragin. Ez-beharrean, ibilgailuak ere kaltetu nabarmenak izan zituen, eta garabi batek eraman behar izan zuen 11:20ak aldera.

PIRAGUISMOA ▶

Itsaso txarrak zapaztu egin zuen kayak zeharkaldia

Fortuna elkarteak bertan behera utzi zuen Getaria-Donostia zeharkaldia

ANDER USABIAGA

Atzo, Getaria eta Donostia arteko kayak zeharkaldia jokatzekoa zen, Fortuna kirol elkarteak antolatuta. Hala ere, itsaso zakarrarengatik, antolatzaileek kirol proba bertan behera utzi behar izan zuten. Igande honetan egiteko aukera aztertu zuen Fortunak, baina azkenean ez egitea erabaki zuen. Hortaz, aurten ez dute egingo dagoeneko tradizio bihurtutako saioa.

Fortunako kideek adierazi zigutenez, SOS Deiak zerbitzuak jakinarazi zien itsasoa oso zakar zegoela eta ezin zuela parte hartzaileen segurtasuna bere gain hartu. Piraguitak uretara atera ziren Getarian, ordea, elkar babestuz eta lehiarik gabe Donostiara iristeko asmoz. Dena dela, olatuak zirela-eta, Orion sartu behar izan zuten.

PASADIZOA ▶

Maskuri baten bila

Buruhandien atsedenaldea aprobetxatuz, Lasarteko Maialen maskuriren bat lapurtu nahian zebilen Bulebarrean. Oso pozik zebilen buruhandien eta erraldoien artean. Nahiz eta zortzi urte besterik ez zituen, ez zien buruhandiei inolako beldurrik. Gustukoaren zein zuen galdetuta, Arlekina-aren alde egin zuen. «Arlekina gustuko dut. Beti nire atzetik dabil, baina oso polita da», esan zuen Maialenek.

Atsedenaldea bukatu ondoren, eta Bulebarreko giroa gori-gorian zegoela, erraldoiek dantzaldia hasi zuten. Jende mordo zegoen une hartan Bulebarrean; asko eta asko erraldoien abileziarekin harrituta. Buruhandiak ere ez ziren geldirik egon: han zebiltzan, alde batetik bestera, maskuria astindu eta astindu. Eta halaxe jarraitu zuten 14:00ak arte.

Donostia kongresu hiria da. Eta atzo buruhandiek eta erraldoiek haiena egin zuten. Donostiarrek ezinhobe pasatu zuten, behintzat.



Gizon bat biluzik Erdialdean

A. Portugal ▶ Atzo goizean, biluzik zebilen gizon batek atentzia eman zuen Erdialdeko kaleetan. Lekuko baten arabera, gizonak Askatasunaren hiribidea zeharkatu zuen. Foruen pasealekuan, ika-mika izan zuen auto istripu batez arduratzen ari ziren udaltzainekin. Santa Catalina zubiaren gainean eseri zen gero, harik eta udaltzainek bertatik eraman zuten arte.

HAUR FESTA ▶



Puzgarriak Saguesen

Lierni Ezeiza ▶ Haurrentzako makina bat ekitaldi izan zen Aste Nagusiko azken egunean. Saguesen, esaterako, sei puzgarri jarri zituzten, umeen gozamenerako. Gazteluak, txirristak, ohe elastikoak... Aukera zabala izan zuten umeek. Edariak ere banatu zituzten, bertara gerturatutako jende mordoarentzat. Eguraldiak, gainera, ez zuen huts egin atzoko hitzorduan.